

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2 E06 **Munduarekin haserre**

Maila: A2

Helburuak: Entzumenean: Ezagunen arteko elkarrizketa batean, kontaketen ideia nagusiak ulertzeko gai izatea. Mintzamenean: Lagunartean, eguneroko jardunean, gustuko duena eta ez duena, hobesten duena adieraztea.

Funtzioak: Iritziak eta jarrerak adieraztea, egoerak adieraztea, solaskidearengan eragitea eta eskaerak, aginduak eta iradokizunak egitea.

Adierazpide linguistikoak: Adierazpide linguistikoak: Harridura-perpauzak. ZER / ZEIN itsusia (den)! DA + N = DEN, NOLAKO aurpegia (duen)! DU + (e)N = DUEN, ZENBAT diru (duen)! DU + (e)N = DUEN

Adierazpide testualak: Hizketa-antolatzaileak: ezta? ez dakit ba! ikusten? barkatu, ondo da, ados, tira, goazen, baina, bueno, aizu, bai?

Azken ekintza: Gelako ikasleak haserrarazten dituzten esaldien zerrenda osatzea.

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Zer gertatuko da?

Entzungo duten audiotik hartutako hainbat esaldi edo molde dituzte ikasleek:

orain arte ez zara kexatu/ pazientzia gutxi daukazu/ gogo handirik ez daukat/atzoko parranda ajeagatik nago horrela/festa ederra/bi egun errekuperatzeko/buruko mina

Izenburua *Munduarekin haserre* dela kontuan izanik, eskatu ikasleei irudikatu eta idazteko zer gertatuko den Josu eta Amaia artean. Ondoren, idatzi dutena ikaskide batekin komentatuko dute eta asmatu duten ala ez audioa entzundakoan jakingo dute. Horretarako parada audioa entzun ondorengo 3.1 Zuen aurreikuspenak bete dira? puntuan eskainiko zaie.

1.2 Parranda eta gero...

Galdetuko diegu ikasleei ea zer egiten duten parranda bat egin ondorengo hurrengo egunean. Horretarako, hainbat aukera eman dizkiegu:

Ohean geratzen naiz eta egun osoan ez naiz etxetik ateratzen. Zinemara joaten naiz. Kirola egiten dut. Etxeko egongelan telebista ikusten dut. Beste parranda bat egiten dut. Beste zerbait egiten dut. (Kasu honetan, idatzi behar dute zer egiten duten).

Ondoren, ikaskide batekin egindako aukera(k) komentatuko dute/dituzte.

2. ENTZUN BITARTEAN

2.1 Zer esan dute?

Entzun Amaia eta Josuren arteko elkarrizketaren lehen zatia eta esan hurrengo esaldiok EGIA ala GEZURRA diren:

Erantzunak

- 1.- GEZURRA Semaforoak beti bezala funtzionatu du. Josu da pazientziarik ez duena.
- 2.- EGIA
- 3.- EGIA
- 4.- EGIA
- 5.- GEZURRA Josuk bi egun behar ditu parranda batetik errekuperatzeko.
- 6.- GEZURRA Asko edan zuen Josuk parrandan, baita lorontzien ura ere.
- 7.- EGIA

Ikasleek berriro entzungo dute audioaren lehen zatia eta aukeran dituzten hitz/moldeak entzun dituzten ala ez esan beharko dute, beraien artean komentatu ondoren. **Erantzuna: Den-denak esaten dituzte elkarrizketan zehar.**

Galdetu ikasleei ezagutzen dituzten eta proposatu egoera ezberdinak pentsatzea, elkarrizketa laburren bidez, praktika ditzaten.

2.2 Entzun eta hutsunea bete

Audioaren bigarren zatia entzun bitartean, hutsuneak beteko dituzte ikasleek.

Erantzunak: 1.- baina; 2.- bueno; 3.- Aizu; 4.- bai; 5.- ados; 6.- tira; 7.- Goazen

Ariketa osatutakoan, ikaskide batekin konparatuko dute hutsune bakoitzean jarritakoa eta aukera egokienak zein diren adostuko dute.

3. ENTZUN ONDOREN

3.1. Zuen aurreikuspenak bete dira?

1.1 *Zer gertatuko da?* ariketan egindako aurreikuspenak bete diren ala ez hausnartzeko eskatuko diegu ikasleei.

3.2 Jarri arreta hizkuntzan

Audioan entzundako pasarte hauek gogoraraziko dizkiegu:

Audioaren lehen zatian: AMAIA.— Ikusten? Berde, goazen. Ai, zer pazientzia gutxi daukazun, gizona!

Audioaren bigarren zatian: JOSU.— Zer jatorra den gure Amaia!

Harridura-perpausen gaineko azalpena ikasleekin batera aztertu eta zalantzak argituko ditugu. Beharrezkoa balitz, adibide gehiago jarri.

Ondoren, hainbat esaldi dituzte berridazteko, adibidean egin den antzera.

Erantzunak:

- 1.- DEN
- 2.- DEN
- 3.- DAGOEN
- 4.- DEN
- 5.- DAGOEN
- 6.- DAUKAZUN
- 7.- DUEN
- 8.- DUEN
- 9.- DUTEN
- 10.- DEN

3.3. Zer esan behar dizute haserretzeko?

Gogoraziko diegu ikasleei entzundako audioan Josu kexaka eta umore txarrez atzeman dugula, atzo parranda egin eta gaur buruko mina duelako. Baita ere, nola Amaiak esan dion gaur bere txanda dela, berak aukeratu behar duela filma eta horrekin ere haserretu egin dela Josu.

Bikoteka ZER ESAN BEHAR DIZUTE ZU HASERRETZEKO? galderari erantzuteko 5 esaldiko zerrenda idatzeko eskatuko diegu.

Adibide gisa. hauek dituzte: *“Ze potola zauden!” edo “Ze gaizki egin dituzun ariketak!”*

Bukatutakoan, talde handian komentatu eta ikusi idatzi dituzten esaldiak beste talde batean errepikatzen diren. Botazioa egin eta denen artean gelako esaldi gaiztoen zerrenda osatuko duzue.

TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Semaforoari asko kostatzen ari zaio berde jartzea, ezta?

AMAIA.— Beti bezala, Josu. Beti pasatzen gara hemendik, eta orain arte ez zara kexatu.

JOSU.— Ez dakit ba!

AMAIA.— Ikusten? Berde, goazen. Ai, zer pazientzia gutxi daukazun, gizona!

JOSU.— Barkatu, uste dut atzoko parrandaren ajeagatik nagoela horrela.

AMAIA.— Festa ederra izan zen.

JOSU.— Bai, baina bi egun behar ditut errekuperatzeko. Zahartzen ari naiz!

AMAIA.— Ez da hainbesterako izango! Atzo lorontzien ura ere edango zenuen, eta begira nola zauden.

JOSU.— Ondo da, ez naiz gehiago kexatuko.

AMAIA.— Horixe entzun nahi nuen.

ETENA

AMAIA.- Eta orain zinemara!

JOSU.— Bai, gogo handirik ez daukat, baina...

AMAIA.— Zuk? Normala. Ezer esaten ez badizut, zu berriz ere ohera. Eta egun osoan ez zara etxetik atera.

JOSU.— Bai, bueno, zer film aukeratu duzu?

AMAIA.— Gaur zure txanda da, Josu, zuk aukeratu behar duzu.

JOSU.— Aizu, ematen du gaur denak zaudetela nire kontra. Auzokoa, zu... eskerrak pisukideak ez ditudan ikusi, bestela errieta, seguru!

AMAIA.— Goxoa zara ba zu ere!

JOSU.— Amaia, polita, gaur bakea, bai?

AMAIA.— Ondo da... Baina filma zuk, ados?

JOSU.— Ados.

AMAIA.— Gainera, gaur ondo aukeratuko duzu. Seguru!

JOSU.— Ondo aukeratu? Zer esan nahi duzu?

AMAIA.— Daukazun buruko min horrekin... ez duzula tiroetakoa aukeratuko, kar, kar, kar!

JOSU.— Zer jatorra den gure Amaia! Tira, goazen!

AMAIA.- Goazen!